

mendia ▸ IBILBIDEAK



Sollube tontorretik Matxitxako lurmuturrerainoko ikuspegia, Sukarrieta, Mundaka eta Bermeo barne direla. ALBERTO ERRAZTI

Mendi aldetik itsasoari begira

Bermeo inguratzen duten Katillotxu, Sollube, Garbola eta Burgoa mendiak lotuko ditugu ibilbide zirkularrean

EKAITZ AGIRRE

Herri arrantzalea da Bermeo. Iritsi eta itsasoko kresalak egiten dio ongietorria bisitariari. Portuan arrantzara joandako ontzien arrastoak ikus daitezke, arrantzaren inguruan bizi izan den herriaren isla. Euskal Herriko kostaldearen berezitasunetako bat izaten da mendiaren eta itsasoaren arteko gertutasuna ere. Bermeo ez da salbuespena. Itsasoa ukitzen du. Arrantza zaharren eta mendizale berrien peskizari ibiliko gara.

Bermeoko Taraska plaza dugu abiapuntu, eta lehenengo urratsak Demiku auzorantz egingo ditugu. Kurtziotik pasa ondoren hara iristeko. Demikutik errepidez jarraituko dugu, eta malda tente eta pikoa gainditu ondoren utziko dugu asfalto eta zementuzko pista bat hartuko. Pistak zuzen-zuzenean eramango gaitu ur depositu eta iturri batera. Berehala datorkigu eguneko lehenengo igoera gogorrenetako bat; hauspoak bete, ur pixka bat edan eta aurrera, beraz. Katillotxu (354 m) dugu zain, Urdaibaiko talaia. Eguraldia lagun, tontorretik ikus daitekeena zoragarria: surflariak Mundakako ezkerreko olatuan dantzan, Izaro uhartea, Sollube, itsasoa eta mendia parez pare.

Belardi zabaletatik jaitisiko gara Katillotxuren azpialdean dauden



Burgoa mendiko buzoia, eta atzean Bermeo. Eskuineko argazkian Gaztelugatxe, Burgoa mendiaren inguruetatik. BERRIA



Eguraldia lagun, ikusmira dotorea da Katillotxu mendiaren tontorretik: itsasoa, Sollube, Izaro...


Mendi turutarrietako bat da Sollube, eta Bizkaiko Batzar Nagusietara deitzen zuten tontorretik

baserrietara. Bideak ezkerretara jotzen du, eta bi hesi pasako ditugu. Baserriak atzean utzi, eta Bermeo eta Busturia lotzen dituen errepidearekin egingo dugu bat. Txalet berri xamar baten eskuinertara dagoen hesia zeharkatu eta behiak egoten diren belardi batera sartuko gara. Hesian *Ez pasa* seinalea irakurriko dugu; tentu handiz zeharkatuko dugu, beraz. Zelaian gora segiko dugu, hesiaren aldamenetik, betiere. Berehala gaude behiek bazkatzeko erabiltzen duten eremuan. Pinudi bat dago bertan, eta berau pasata errepidearekin bat egingo dugu ostera. Errepidea zeharkatu eta pinudian barna sartzen den pista hartuko dugu. Pista Pagoko Landan bukatzen da, eta bertatik dagoeneko ikusiko dugu Sollube berezi eta ezagun egiten duen antena. Belardian gora jarraitu, beste hesi bat gainditu eta hartxintzarrezko pista batera irtengo gara. Pistari jarraitu eta berehala hartuko dugu ezkerretara, beste pista bat hartzeko. Handik jarraituta iritsiko gara

zuzenean Sollube mendiaren tontorrera. Bizkaiko mendi turutarrietako bat da Sollube, Batzar Nagusietara deitzeko erabiltzen zuten mendia, alegia. Atsedeneku bat dago inguruan, eta atsedean hartzeko eta indarberritzeko lekua izan daiteke. Antenaraino igoko gara eta handik ikurrin handi bat begiztatuko dugu; hara abiatuko gara.

SOLLUBETIK GARBOLARA. Bermeoko lurretan oraindik ere, Sollube mendatera zuzenduko ditugu gure urratsak. Gasaren bidetik —zutoin horiak— jarraituko dugu Mañu auzuneraino, eta handik Sollube mendatera doan azken zatia errepidez osatuko dugu. Mendetik Garbolara doan zatiak ez du aparteko zailtasun eta misteriorik. Solluben dagoen jatetxearen atsedenekutik abiatzen den pista eramango gaitu tontorreraino, 20 minutu eskasean. Garbolatik Burgoarako zatia osatzeko modu bat baino gehiago dago. Gu hartxintzarrezko pista batera jaitisiko gara. Bide hori segiko dugu Burgoaren oinarri iritsi arte, eta han beheeraka doan pista hartu beharrean tontorrera doana segiko dugu. Harritzko azken zati tentea igotzea baino ez dugu faltako.

Burgoatik bidegurutzera jaitisiko gara, eta, orain bai, behearantz doan pista hartuko dugu, laster batean marka hori eta zuriak dituen beste batean barneratzeko, eskuinera. Pista horrek errepidera eramango gaitu, eta errepidez 100 metro inguru ibili ostean, ezkerretik doan pista zabalean sartuko gara. Ur depositu bat ikusiko dugu, eta handik beheara asfaltoarekin bat egingo dugu. Jaitsi eta jaitsi iritsiko gara Bermeo eta Bakio lotzen dituen errepidera, eta handik azken urratsak egingo ditugu Bermeoko Taraskaraino.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net

